



## **EUSKO LEGEBILTZARRAK ETA HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAK LEGEBILTZARREKO ADMINISTRAZIOAREN ENPLEGU PUBLIKOKO ESKAINTZAK KUDEATZEKO SINATU BEHAR DUTEN HITZARMENARI BURUZKO TXOSTENA**

---

2017/044 LT

### **I.- AURREKARIAK**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAE Eren) Hautaketa Zerbitzuak goian aipatutako hitzarmenari buruzko txostena eskatu du. Hitzarmen horrekin batera, espedientean dago HAEEko Hautaketa Zerbitzuko aholkulari juridikoaren txostena.

Oraingo gure legezketasun txosten honen oinarri da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6.1.h) artikulua, bai eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 188/2013 Dekretuaren 13.1 a) artikulua.

### **II.- HITZARMENAREN AZTERKETA**

#### **A). Eskumenak**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoaren uztailaren 27ko 16/1983 Legearen laugarren artikulua arabera, eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen urriaren 16ko 200/2012 Dekretuaren bigarren artikulua arabera, erakunde honek bere helburuen artean dauka beste administrazio publiko batzuetako langileak hautatzea, administrazio horiek berek eskatzen badiote, eta euskal administrazio publiko guztiek sustatutako hautaketa-prozesuetako epaimahaietan parte hartzea,

funtzio publikoari buruzko legerian esaten denaz bat. Halaber, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 29.2 artikuluekin bat etorrita, erakunde horrek itunak izenpetu ahal ditu gainerako euskal Administrazio Publikoen zerbitzuko langileak aukeratzeko edo, hala behar izanez gero, funtzionario izatera iritsi aurretiko baztertze-indarreko trebatze-ikastaroak egiteko.

Bestalde, 1990ko ekainaren 22ko Langileen Estatutuaren eta Legebiltzarreko Administrazioaren Araubide Juridikoaren 1 artikulua ezartzen duenez, arau honen bidez eta Autonomia Estatutuko 27.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Legebiltzarreko administrazioaren egitura organikoari eta langileriar buruzko araubide juridikoa arautu eta eratzen da. Honetaz gain, arau horren 3.1 artikulua adierazten du langileei eta barne araubideari dagokionez, Legebiltzarreko Mahia dela zuzendaritza organo eskuduna eta berari dagokiola langileen Estatutua arau bidez garatzea.

Halaber, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 28.1 artikuluekin bat etorrita, Legebiltzarreko kide anitzeko organo artezkaria da Mahaia, eta bere lehendakariaren agintaritzaren eta zuzendaritzaren menpe jarduten du eta Legebiltzarraren ordezkartza du, parte hartzen duen ekitaldietan. Horrez gainera, testu horren 36.1 artikuluen arabera, Legebiltzarreko lehendakaria Legebiltzarraren ordezkari gorena da.

## **B) Hitzarmenaren oinarri juridikoa**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.1 artikuluekin bat etorrita, administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumeneko jardura materialak edo teknikoak, administrazio bereko edo beste bateko organo edo zuzenbide publikoko entitateen gomendio utz daitezke, jardura horiek haien eskumener barruan badaude, efikaziari begira komeni bada, edo jardura horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago.

Halaber, lege horren 11.3. artikulua ezartzen du kudeaketa-gomendioa administrazio desberdinetako organo eta zuzenbide publikoko entitateen artean egiten denean, dagokion hitzarmena izenpetuz formalizatuko dela, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-

erkidegoko aldizkari ofizialean edo probintziakoan argitaratuko dela, gomendioa egiten duen organoa zein administraziotakoa den kontuan hartuta.

Horiek horrela, hitzarmen honen xedea da Eusko Legebiltzarraren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen arteko lankidetzeta-markoa ezartzea, eta arautzea Eusko Legebiltzarraren lan-eskaintza publikoak egikaritzuz deitzen diren hautaketa-probak abiarazteko eta garatzeko behar den operatiboaren kudeaketa, hala erabakitzen den prozesuetan. Zalantzarik ez dago, lehen aipatutakoaren arabera, jarduera horiek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunderen eskumenen barruan daudela.

#### **D) Hitzarmenaren edukia**

Lehenengo klausulak ezartzen du hitzarmenaren xedea bi alderdien arteko lankidetzeta-markoa ezartzea eta arautzea dela. Hurrengo klausuletan zehazten dira zein arloetan gauzatu daitekeen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen lankidetzeta; aipatzekoa delarik arlo guztiek izaera tekniko eta materiala dutela.

Bosgarren klausulak adierazten du hautatzeko prozesu bakoitzean erabakitzen den kolaborazioak ez dakarrela, ez eskumenaren titulartasuna, ez eta eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea. Hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.2 artikulua lehengo paragrafoak ezarritakoarekin bat dator.

Hamargarren klausulak zehazten du hitzarmenaren ondorioz sortzen diren gastuak, HAEEK ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa finkatzen duen Aginduaren arabera likidatuko direla, ekitaldi bakoitzean indarrean dagoenaren arabera.

Hamaikagarren, hamabigarren eta hamahirugarren klausulak datu pertsonalen tratamenduari buruzkoak dira. Aipatzekoa da klausula horiek datuak babesteari buruzko araudiarekin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.2 artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat datozela.

Hamalagarren klausulak hitzarmenaren iraupena finkatzen du, alderdiek sinatzen dutenetik 2017ko abenduaren 31 arte, baina adierazten du luzapena egiteko aukera egongo dela.

### III. ONDORIOA

Hitzarmenaren xedea alderdi sinatzaile bien eskumen-esparru barruan dago eta, honenbestez, hitzarmen proposamenak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritako baldintzak betetzen ditu. Hori dela eta, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Eusko Legebiltzarraren arteko hitzarmena indarrean dagoen legeriarekin bat dator. Dena den, lehen aipatu den bezala, hitzarmena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Hau da nik neuk emandako txostena, eta zuzenbidean oinarritutako edozein txosten hoberen menpe jartzen dut.